

HERNANIK

kronika

2004 urtea
Ekainak 17
Osteguna
Alea: 1141
www.kronika.net



Hernani Kirol Elkarteko arduradunak asteanean egindako batzarrean. Beren hitzetan, erre daude Patronatuaren jarrerarekin.

Kirol Elkarteak Patronatuarekin elkarlan konbenioa eskatzen du, eta dio egoera limitera iritsi dela

■ HKE: "Ez dugu dirurik eskatzen. Beste klubekiko berdintasuna eskatzen dugu" ■ HKEk otsailean aurkeztu zion konbenio proposamena ■ Patronatuak Erabilpen konbenioa eskaini die eta klubak ez du onartu.

KIROL Elkarteak eta Kirol Patronatuaren arteko konpondu ezina lehertu egin da eta boleibol, igeriketa, mahai tenisa, saskibaloia, waterpoloa eta judoaren etorkizuna aidean dago. HKEk batzar berezia egin du aste honetan guraso eta kirolariekin egoeraren berri azaldu eta aurrera begira zer pauso eman erabakitzeo. Kirol Elkarteko zuzendariek adierazi zutenez, gaia berez aspaldikoa kontua, eta sakoneko arazoa da Kirol Patronatuko arduradunek klubekiko duten jarrera.

Gora behera larriak, ordea, joan den irailean hasi ziren eta Gabon aurrean HKEko arduradunak dena uzteko zorian egin ziren.

Konbenioaren zai otsailek
Batzarrean emandako informazioarei arabera, egoera konpontzeko Kirol Elkarteak

DENA UZTEKOTAN

"Patronatuak lan egiten uzten ez zigulako, Eguberri aurrean dena uztekotan egon ginen. Espero dugu orduan hartu ez genuen erabakia orain hartu beharrik ez izatea"

HKE: SEI KIROL

Hernani Kirol Elkarteak kirolegian ibiltzen diren kiro-lak biltzen ditu: saskibaloia, igeriketa, boleibola, judoa, mahai tenisa eta waterpoloa. Kirol eskaintzaren % 37.5.

elkarlanerako konbenioa proposatu zion Patronatuari. "Konbenio horretan eskatzen duguna da beste klubekiko berdintasuna" esan zuen Aizpuruak. Berdintasun horren barruan "gainerako klubetan

umeek eta gazteek ez dute kirola egiteagatik ordaintzen, eta guk bai" adierazi zuen Lizarazu HKEko lehendakariak. Baino, badira beste aspektu batzuk ere: "umeei txartela ahazten bazaie, ez diete sartzen uzten, eta entrenamendu gabe gelditzen dira. Hori ezin da onartu, eta are gutxiago gure datu guztiak ordenagailuan edukita" salatzen dute Kirol Elkarteko kideek.

Erabilpen konbenioa

Patronatuak joan den astean erantzun dio Kirol Elkarteari eta Erabilpen konbenioa eskaini dio HKEren hitzetan, ez elkarlan konbenioa. Planteamendu hori ez dute onartzen, besteak beste, gainera-ko klubek ez daukatalako horelakorik. Gainera, dio Kirol Elkarteak "Kirola bultzatzeko obligazioa sinatu arazi nahi digute. Legez, Patronatuak du kirola bultzatzeko obligazioa, ez guk. Kirol dinamizatzailea ere badu Patronatuak".

Kirol Elkarteak Patronatuari kritikatu dion beste puntu bat da otsaila ezkerotik hiru bilera eskatu dituela eta ez duela oraindik erantzunik jaso. Egunotan berriz ere bilera eskatzekotan dute.

ZER ESKATZEN DU HKEk

Berdintasuna. Hernani Kirol Elkarteak beste klubekiko berdintasuna eskatzen du: kiroldegian dabiltsan klubetako kirolariek ere kirola egiteagatik ordaindu beharrik ez izatea.

Jarrera aldaketa. HKEren iritzirako, Kirol Patrotatuko arduradunek klubei lagundu beharrean trabak jartzen dizkiote. Kirol Patronatuarri gogoratu arazi diote "bere ardura dela herrian kirola bultzatzea, ez klubena. Gu, laguntzeko gaude".

Konpromisoa. HKEk konpromisoa eskaintzen du orain biltzen dituen kirolak eta sortu litzkeen berriak bultzatzeko.

Herriari zerbitzua. HKEk kon-sideratzen du borondatzeko lanari esker, gazte askok kirola egiteko aukera dutela, eta herriari ematen dion zerbitzu hori ez dela behar bezala errekonozitzen.

Patronatuko arduradun eta Kirol Elkartearen arteko gatazkaren aurreneko biktimma mahai tenisa izan da. "Nik lanean jarraituko dut, baina, mahai tenisa kirolegitik atera egingo da, horrela ezin delako jarraitu" adierazi du arduradunak. □

'Le Telebixon' antzerkia eta saloi dantzak gaur

BITERIKO ikastaroetako jendeak antzerkia eta saloi dantzak egingo ditu gaur publikoarentzako, Biterin bertan, arratsaldeko 19:30etan. Le Telebixon antzezlana izango da batetik eta saloi dantzako ikastaroetakoek ere emango dute ikuskizuna. □

Atleta Osoa eta palankan izen ematea zabalik

ETXEBERRIKO Lagun Artea elkarteak antolatzen ditu 32garren Atleta Osoa proba eta 23garren Palankari txapelketa, eta uztailaren 27an izango dira aurten, bi probak goizeko 10:30etan. Izen ematea Etxeberriko Lagun Artean egin behar da eta debalde izango da. (telefonoa 943 552718. 19:00etatik 21:00etara). Parte hartzale guztientzat daude sariak eta luntxa. □

Haur Eskolako gurasoek laguntza eskertu dute

MARIELUTS Haur Eskolako gurasoak gustora daude Transpakarrera itzultzea lortu dutelako. Arkitektoen Elkargoari eskatu zioten txostenari esker lortu dutela diote eta txostenaren ordaintzoko ate-ratako errifak erozi zituztenei "eta modu batera edo bestera lagundu diguzuen guztiel" eskerrak eman dizkie. Errifako zozketa ekainaren 11ean egin zen eta Arantza Barrantiaran izan da saritua. □

Gira Girou-Bossa Nova eta Despervicio

GUNEA garagardotegian kontzertua emango du gaur Gira Girou-Bossa Nova taldeak, gaueko 22:30etan. Taldeak musika brasildarra egiten du eta Constanza Gallo eta Edson Goya dira taldeko artistan nagusiak.

Bestalde, bihar, Despervicio taldeak Urumea tabernan joko du gaueko 22:00etan. Despervicio Punk-rock taldea da, eta Eneko Lopez hernaniarrak eta hiru lasarteak osatzen dute. □



Batzarreko jendeak ere konponbide zaila ikusten zion arazoari.

Eguzki perfumeria



Eguzki perfumeria

Gure dendaran, behar dezuna daukagu.

- ▶ Perfumeria
- ▶ Opariak
- ▶ Edertz gela
- ▶ Solariuma
- ▶ Ileapaindegia

Kale Nagusia 45, Tel.: 943 551333

AMEGAR

Etxe tresnak Altzariak



Elektrogailuak TB- Bideoak- HI-FI-Opariak

Sukalde altzariak

Tel.: 943 55 11 25
Faxa: 943 55 16 03

GAIK KONTZERTUA

GIRA GIROU BIKOTEA



Burriko BOSSA NOVA estileko musika
22:30etan

ARGARAIN KALEA 2-BEHETA . HERNANI . 943 33 25 29

Erraustegiaren kontrako manifestazioa larunbatean

■ Talde eta eragile askok egin du bat manifestazioarekin.

INZINERADORAREN kontrako manifestazioa deitu du erraustegiaren kontrako plataformen koordinadorak, datoaren larunbatean Donostian, arratsaldeko 18:00etan eta talde eta eragile askoren babesu lortu dute atzo prentsurrean azaldu zutenez. Koordinadorak erraustegia osasunarentzat oso kaltegarria dela dio eta hondakinak kudeatzeko bestelako plan baten alde egin du.

Atxikimentuak

Hernaniko Kronikara manifestazioarekin bat egiteko komunikatuak bidali dituzte Hernaniko ESK-CUISek eta Aralarrek. ESK-k dio inzineradora

hondakin gestioan inzinerazioaren metodoa baztzen dutela, zaharkitua gelditu delako, oso garestia delako eta asko kutsatzen duelako. Horrez gain Diputazioaren jarrera salatu du, "legea saltatu eta gezurra eta koakzioa erabilita beren boterea erabili nahi dute, Txingudikoaz gain beste inzineradora bat jartzeko". Hernani Bizirik elkarlari babesu azaldu dio ESK-CUISek eta metodo merkeago, seguruago eta lana sortzeko modukoen alde egin du.

Hernaniko Aralarrek ere erraustegiaren kontra egin du eta "administrazio publiko desberdinak erabaki duten zaborrak erretzearen aldeko politi-

ka" ez du ontzat ematen. Errusategiek benetako arazoak ez dutela konponduko uste du Aralarrek: gaur egun sortzen den hondakin kopuru haundia eta hori nola murriztu. Aralarrek ezinbestekoa ikusten du herriarren parte hartze zuzena bultzatzea "geu baikara hondakinak produzitzen ditugunak eta konponbideak ere gure esku egon behar luke, baina, noski, administrazioak bideak jarri beharko lituzke". Horretarako praktika asko jarri litezkeela uste du Aralarrek: minimizazioa, berrerabilpena, birziklaje, zabor organikoa bildu eta konpostatzeko bosgarren kontenedorea jartzea eta abar. □

Ander Iradi irabazole San Antonio sarian

ANDER Iradi Mitxelena txirrindulari hernaniarrak irabazi zuen joan den asteburuan kadeteentzako San Antonion Saria, Bergaran. 70 kilometroko proba bukatzeo 30 bat falta zirenean alde egin zuten berak eta Garikoitz Bravok. Heltugarako 300 bat metro falta zirela, Iradi gazteak atzean utzi zuen Bravo igoera batean eta Helmugara bakarrik iritsi zen. Bigarren, Garikoitz Bravo bera sartu zen, 8 segundora, pelotaia gainean zuela, 12 segundora iritsi baitzen. Bergarako proban, 145

txirrindularik hartu zuten parte eta Iradien abiadura bataz bestekoa 35,215 kilometro ordukoa izan zen.

Denboraldi ona

Ander Iradik denboraldi ona daramaki aurtengo hau: Bergarako probaz gain, Urretxu ere irabazi du aurten eta postu bat baino gehiago egin ditu. Kaiku taldean hernaniar bat baino gehiagok korrizen du: Iradi berak, Mikel Salaberriak, Txaber Zabaletak, Axel Txandrek eta Aitor Asiainek, besteak beste. □



Ander Iradi Kaiku taldean dabil.

JASOTA BEZALA

Produktu garesti eta kutsakorra saldu nahi digute

Erraustegia ez hemen ez inon! Azkenaldi honetan hedabideetan erraustegiaren kontuak hainbat kezka eta buruko min sortu ditu jendearengan, hau hala suertatzeko arrazoia Gipuzkoako Foru Aldundiak hartutako erabakiaren ondorioa izan da, Gipuzkoan bi erraustegi eraikitza zabarrantzat, alegia. Lehenik eta behin, egun badau de hondakin solidoak kudeatzeko teknika alternatiboen, merkeagoak eta hain kaltegarriak ez direnak.

Errausketak jasangarritasun eredu batetik urrunten gaitu, konpontzen ez duelarik benetako arazoa. Aitzitik, iraunarazi egiten du zaborra behar baitu erregai moduan. Erraustearena sistema zaharkitua da, honezkerro Europako herrialde aurreratuenetan baztertua dagoena,

hauek ekologikoagoak diren ereduk ezartzen dituzte.

Errausketak kutsadura desbideratu egiten du beste ingurune batera, atmosferara (dioxinan, furanoak eta metal astunak sortzen ditu, hauek, besteak beste, minbizia sortzen dutelarik) baina ez du desagerrazten.

Badirudi ez direla beste bide batzuk jorratu nahi izan, interesak zeudelako erraustegiak eraikitzen eta ez, hondakin solidoen sakoneko arazoari aurre egiten.

Hortaz gainera, erraustegiak zabortegietarako lur eskasia ez du konpontzen, ezta hauen

pilatzea ere. Honek zabortegi lagunak behar dituelako, erraustegi plantatik sortzen den errautsa pilatzeko, gutxi gorabehera labean sartzen den hondakin pisuaren %30a edo %50a aterako da-eta errautsetan.

Murrizketari bai!, Berrabilpenari bai!, Berziklapenari bai!, Konpostajeari bai! Errauste plantari ez!

Horregatik, larunbatean, ekainaren 19an, hitzordu bat dugu Donostiako bulebarrean 6etan izango den manifestazioan.

Jone Egaña
STEE-EILA Seko kidea

dekorazio projektuak
gremio koordinaketa...

Iñaki Alkorta
barne diseinua

Kardaberaz 39 - www.inakialkorta.com - 943 335431



Udal zinegotziak eta Kontsumitzaile Bulegoko teknikaria hitzarmena sintzeko unean, Biterin.

Hernaniko Kontsumitzaileen bulegoak urnietarrei ere emango die zerbitzua

■ Hernanik eta Urnieta elkarlan hitzermena sinatu dute.

KONTSUMITZAILEEN Informaziozko Udal Bulegoak urnietarrei ere emango die zerbitzua. Horixe biltzen du Txema Mercado Hernaniko Udal zinegotziak eta Maria Angeles Iriondo, Urnietako Udaleko Ongizate zinegotziak sinatu zuten hitzarmenak.

Kontsumitzaileen bulego bateratu honek Hernani, Astigarraga eta Urnieta herriarrentzat balioko du eta bulegoa Biterin izango du orain artean bezala.

Zerbitzu bera

Kontsumitzaileen bulegoak dituen zereginen artean daude: jendearen konsultei arreta personalizatua ematea; salaketa, keja eta erreklamazioak aztertu eta tramitatzeara; aldeen arteko bitartekari lana egitea; kontsumo arbitrajeen esabideak izenpetzea; kontsumitzaileak orientatzeko informazio kanpainak egitea; kontsumitzaileentzako informazio materiala editatzea eta lege eta arauen artxiboa. □

Umore onean egin zuten 31garren ibilia eta bazkaria Txinpartakoek

HERNANI-GOIZUETA ibilia egin dute aurtun Txinparta koadrilakoek 31garren urteaz segidan. 25 lagun joan ziren oinez eta bazkaltzera 40 bat elkartu ziren Goizuetako Umore Ona elkartean. Txatok jarri zuten bazkaria denentzako eta berak eramandako sagardo

lehiaketa egin zuten ondorenean. 24 sagardotatik onena Ibai Aristimuñok eraman-dakoa juzgatu zuten, Zapainangoa. Hurrengo Manuel Otxotorenak eramadakoa izan zen Zapaiangoa hau ere, eta hirugarrena Joxe Angel Ijurkox eramana, Altzuetakoa. □

ZERBITZUAK

TELEFONOAK

- Taxiak: 943 550093
- Udaltzaingoa: 943 333288
- DYB: 943 464622
- Autobusak: 943 556662
- Anbulatorioa: 943 006666
- Jokalari anonimoak: 943 331103
- Alkoholiko anonimo: 943 331103

FARMAZIAK

- Egunez: Etxebeste Elkano 2 ☎ 943 552087
- Gauetan: Atxa-Orbea Lasarte. Hipodromo 6 ☎ 943 363549

IRAGARKI MERKEAK

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebra, reflexologia, auriculoterapia,...: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Santa Barbara 42)

Bizikleta salgai. Errepideko Zeus txirrinda. Egoera onean. Deitu: 943 556338

Pertsona bat behar da tabernan lan egiteko: Deitu: 616 28 62 13

Kanping karroa salgai. Karabana bihurtzen da. Aluminiozko panelak. Interesatuek deitu arratsaldeetan: 943 551832

Nissan Primera salgai. SS-AN. 1.200 euro. Interesatuek deitu: 661 86 22 19

ZINGI-ZANGA
Jatetxea
Sagardotegia



ZINGI - ZANGA
Florida 54
943 33 03 97

Ostegunetik larunbatera afariak.
Sagardotegiko menua 15 €.



Astean zehar, eguneko menuak.